

II.- IKAS ARLOAK

- 1.- Euskara eta Literatura**
- 2.- Teknologia**
- 3.- Musika eta Dantza**
- 4.- Plastika eta Ikus adierazpena**
- 5.- Gorputz heziketa**
- 6.- Gizarte Zientziak**
- 7.- Natur eta Osasun Zientziak**

1.- EUSKARA ETA LITERATURA

1. SARRERA

Gizabanakook gure hizkuntzaren bidez ikusten dugu inguruko mundua eta hortaz, hizkuntza baten jabe izatea hizkuntza horrek bideratutako kultura barneratzea ere bada, hura interpretatzeko eta birsortzeko giltzak edukitzea, hain zuzen ere. Honela, hizkuntza komunitatearen identitatearen euskarri gertatzen da eta haren jabe izateak giza komunitate horren partaide izatearen kontzientzia bideratzen du.

Hala izanik, euskara gure kultur ondarearen oinarritzko sortzaile eta adierazletzat hartzen dugu eta beraz, Euskal curriculum espezifikoaren ardatz nagusia, euskara bera dela esango genuke.

Euskara arloa bere osotasunean txertatzen da horrenbestez Euskal Curriculum espezifiko eta komunaren barruan, gizakiaren eta gizartearen garapenean edozein hizkuntzak betetzen duen paper osoa bete dezan ziurtatzeko asmoz. Euskarak tresna eragingarria izan beharko luke ikaslearen izaera eta nortasuna garatzeko, haren pentsaera garatzeko eta inguruan duen errealitatea irudikatzeko, bizi duen giza komunitatean era egokian eta arduratsuan parte hartzeko, komunitate horrek sortutako kultur espezifikoan parte hartzeko eta kultura hori elikatzeko eta biziberritzeko prozesuan partaide izateko.

Funtzio horiek guztiak betetzen dituzte hizkuntzek eta gurea bezalako gizarte elebidun/elaniztun batean, gizartean diren hainbat hizkuntzen artean partekatzen da horietako gehienak bete ahal izateko beharrezkoak diren konpetentzien garapena. Horregatik, Derrigorrezko Euskal Curriculumaren proposamenean, Hizkuntza Arlo bateratu bakar bat garatu egin zen, euskararen ardaztutako eleaniztasun integratua helburu zuena. Bertan zehaztutako konpetentzia guztiak izango dira Euskal Curriculum espezifikoan bereizitako Euskara arloaren ezin besteko osagai. Horrekin batera badira, alabaina, euskarak eta euskal kulturak berezkoak dituen ezaugarriak, hizkuntzarenak, haren bitza sozialarenak, edota euskaraz garatutako literaturarenak, eta horiek behar bezala zehaztean eta azpimarratzean datza batik bat oraingo lanaren funtsa.

Horrenbestean, Euskara arloaren deskripzio honetan, hizkuntza arloari orokorrean dagozkion konpetentzia guztiak aipatu arren, edukien kasuan, euskararen eta euskal kulturaren espezifikotasunari bereziki erantzuten diotenak bakarrik azpimarratuko ditugu ondoko zehaztapenetan, honakoak berezi ditugularik:

- **Euskararen beraren ezaugarri linguistiko espezifikoak.**

Euskara kalitatez eta eraginkortasunez erabili ahal izateko, haren sistema formalaren berezitasunak ezagutu eta barneratu behar dira, ez apendizai objektu abstraktu eta islatu gisa, baizik eta beti ere komunikazio ekintza burutu ahal izateko ezinbesteko osagai gisa. Hartara, komunikazioa abiapuntu delarik, euskararen sistemaren gaineko hausnarketa hainbat mailatan garatuko da: testuinguruaren eremuan (deixia, modalizazioa, birformulatze formulak...); diskurtso eta testuaren eremuan (baliabide anaforikoak, testu antolagailuak...);

baita perpausen eta hitzen eremuan ere. Eta guztia helburu bakar batekin, ikasleek euskara egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez erabiltzeko konpetentzia gara dezaten.

- **Euskararen historia sozialaren oinarriak, hizkuntzen konkurrentziaren marko zabalaren barruan kokatuta.**

Euskal gizarteak bizi duen egoera linguistiko konplexua ulertu ahal izateko, egoera hori era kritikoan baloratu eta haren aurrean jokabide egokiak garatu ahal izateko, oinarrizko ezagutza sozio-linguistikoak ezin bestekoak dira, hala nola: hizkuntz dibertsitatea, hizkuntzen konkurrentzia fenomenoak, hiztunen ikuspegitik hizkuntz aniztasunari erantzunak...

Ezagutza horiek curriculumeko hizkuntza guztien artean partekatutako edukiak badira ere, euskarari bereziki dagokiolarik, haren bilakaera historiko-sozialarekin loturiko ezagutzak curriculum espezifikoaren oinarrizko eduki bihurtzen dira, haren argira bakarrik uler baitateke euskarak gaur egun bizi duen egoera gutxitua eta hura ulertuz eta haren gaineko hausnarketa kritikoa eginez bakarrik lor baitaiteke ikasleek euskararen normalkuntza prozesuetan engaiamendu aktiboa eta arduratsua gara dezaten.

- **Euskal literatura idatziaren zein ahozkoaren ezaugarri eta adierazle nagusiak.**

Literatur lanak, norbanakoaren, gizartearen eta kulturaren identitatea adierazteko modu pribilegiatuak dira. Zentzu horretan, euskal literaturaren obra eta egile erreferentzialak, testuinguru historiko eta sozio-kultural jakin baten emaitza diren heinean, euskal kultura espezifikoaren adierazle nagusiak dira, eta horrenbestean, euskal curriculum espezifikoaren eduki garrantzitsua.

Euskal kulturaren duen garrantzia ikusirik, ahozko literaturaren eremuak eta bereziki bertsolaritzaren inguruko edukiek funtsezko lekua hartu dute egindako aukeraketan. Ahozko tradizioaren genero nagusien adierazleak ezagutuz eta gozatuz kultur ondarean partaidetza bilatu nahi da. Bestalde, bertsolaritzari aparteko arreta jarri zaio, euskal literaturan duen pisu bereziari erantzunez, bai eta gaur egungo gizartean ere hartu duen hedadura kontuan hartuz. Bertsolaritzaren oinarrizko erreferenteak zehaztu egin dira batetik (bertsolaritzaren historia, bertsolari ospetsuenak, bertso-paper nagusiak), eta bestetik, bertsogintzaren prozeduren jabe izatea nahi da, ez horrenbestez bertsolariak sortzeko asmoz, baizik honek eskaintzen dituen aukerak baliatzeko (sormena, irudimena, memoria, adierazkortasuna, argudiaketa, rol desberdinen proiektzioa...). Bai eta ikasleak arte mota hau baloratzeko eta gozatzeko gai izan daitezten.

Idatzizko literaturari dagokionez, euskal literaturaren bilakaera historikoaren funtsezko ezaugarriak zehazteaz gain, horren oinarrizko adierazle izan daitezkeen idazle nahiz obren zerrenda orientagarria eskaintzen da, kasu horretan Euskal Herrian sortutako literatura guztia hartu dugularik kontuan, euskaraz zein erdaraz idatzi duten idazleak bilduz.

2. KOMPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean (16 urte), Euskara eta Euskal Literaturaren helburua ikasleek konpetentzia hauek lortzea da:

1. Hainbat erabilera-eremutako askotariko ahozko testuak eta testu idatziak eraginkortasunez eta era kritikoan ulertu, eta irakurketaren edota entzuketaren emaitza helburu pertsonalei, sozialei edo akademikoei erantzuteko erabili, bere kasako erabiltzaile mailan (B2)
2. Hainbat erabilera-eremutako askotariko ahozko testuak eta testu idatziak sortu egoki, argi, zuzen, koherentziaz eta jariotasunez helburu pertsonalei, sozialei eta akademikoei erantzuteko, bere kasako erabiltzaile mailan (B2)
3. Hizkuntza sistematzat hartuta, hari buruzko hausnarketa egin (testuinguruaren, testuaren eta perpaus eta hitzaren eremuan), hizkuntzaren elementuak eta haien erabilera arautzen dituzten erregelak ezagutuz eta ezaguera horiek hizkuntza ezagunen artean transferituz, ulermenari eta ekoizpenari dagokionean erabilera hobetzeko eta hizkuntzaren ikaskuntza errazteko.
4. Inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatu, hizkuntzen bitziza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremanak ezagutuz, euskararen erabilpenaren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa garatzeko, beste hizkuntzekiko errespetu eta balorazio jarrerekin batera.
5. Literatur hizkuntzaren berezko ezaugarriak eta euskal kulturaren oinarritzko erreferenteak ezagutu, obrak jatorrizko testuinguru historikoaren eta sozio-kulturalaren baitan irakurriz, entzunez nahiz ikusiz eta aztertuz, iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko euskal gizartearen errealitatea kritikoki interpretatzeko, norberaren kultur nortasuna eraikitzeke eta literatur lanak ulertzeko eta sortzeko, hizkuntzaren mugak eta aukerak aztertuz.
6. Literaturaz gozatu, erreferentziazko testuak eta norberak aukeratutakoak irakurriz eta ikus-entzunezko beste arte eremuetan sartuz (antzerkia, zinema, irratia, telebista...), norberaren esperientziari esanahia emateko, giza egoera hobeto ulertzeko eta sentsibilitate ludiko-estetikoa garatzeko, norberaren nortasun pertsonala eta soziala eraikitzeke helburuarekin

EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1.- AHOZKO KOMUNIKAZIOA	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
1.- Hizkuntza aldetik konplexuak diren ahozko azalpen luzeen funtsezko ideiak identifikatu (hainbat erabilpen eremutako gai ezagunei buruzkoak), eta ideiak horiek ahoz eta idatziz adierazi..	<ul style="list-style-type: none"> - Aktiboki entzuteko jarrera agertzen du, hitzik gabeko erantzunen bidez edo galdera laburrak eginez. - Oharrak idazten ditu, ideia nagusiak eta xehetasunak bereiziz. - Gaia eta hiztunaren komunikazio asmoa ondorioztatzen du. - Testuaren egitura eta ideien hierarkizazioa islatzen duen eskema edo laburpena egiten du. -
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
2.- Erabilpen eremu desberdinetako hainbat generotako ahozko testuetan, entzutearen helburuari erantzuteko beharrezkoak diren informazioak aukeratu eta aukeratutako informazioak proposatutako helburuak betetzeko erabili (ikerketa, jarduerak, etab.).	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua lortzeko egokiak diren informazio esplizituak identifikatzen ditu. - Eskatutako informazioa ondorioztatzen du. - Entzuteko prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (oharrak, taulak, grafikoak, galdeketa...). - Erregistratutako informazioa hainbat lan egiteko iturri modura erabiltzen du.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
3.- Elkarrizketetan eta formaltasun maila desberdineko eztabaidetan norberaren ideiak azaldu, defendatu eta kontrastatu: egoki, eraginkortasunez eta modu aktiboan parte hartuz eta elkarlanerako norberaren kontrol maila onargarria agertuz, bai taldean burutu beharreko zereginetan, bai ezagueraren garapenean	<ul style="list-style-type: none"> - Besteekin egiten du lan eta talde lanetako erantzukizunak besteekin batera hartzen ditu, lan jakin bat egiteko edo arazo bat konpontzeko. - Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak egiteko. - Bere ikuspegi pertsonala azaltzen du, ikuspegi hori arrazoituz eta besteen argudioak ezeztatuz. - Bere parte hartzeari buruzko berariazko galderak erantzuten ditu. - Galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu, besteek hitz egiten dutenean. - Ikuspegi desberdinak alderatu eta bere ikuspegiaren berrikuspena onartzen du. - Arrazoizko ondorioak ateratzen ditu. - Mezu jakin batean esplizituak ez diren osagaiak ondorioztatzen ditu: hiztunaren jarrera, diskurtsoaren tonua, umore

	<p>osagaiak, ironia, zentzu bikoitza...</p> <ul style="list-style-type: none"> – Argi eta erraz adierazten ditu bere ideiak, egoerak eskatzen duen erregistroa erabiliz. – Elkarrizketaren arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen ditu.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>4.- Bizitza pertsonalaren edo sozialaren edozein egoeratan solasean aritu, jario-tasun, naturaltasun eta egokitasun maila onargarriekin, pertsonen arteko komunikazio egokia garatzeko, besteenganako errespetua agertuz, beraien ezaugarri fisikoak, sozialak, kulturalak... direnak direla ere</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Argi, erraz eta eraginkortasunez adierazten ditu bere ideiak, egoerak eskatzen duen erregistroa erabiliz. – Kultur ondarearen esamoldeak, baliabide erretorikoak edo eta erreferentziak erabiltzen ditu, hizkuntzaren funtzio ludiko eta emotiboei erantzuteko. – Elkarrizketaren arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen ditu. – Edozein bereizkeria mota islatzen duten estereotipoak erabiltzeari uko egiten dio. –
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>5.- Gai konplexu bati buruzko ahozko aurkezpen argiak eta ondo egituratuak autonomiaz egin, aurrez planifikatuz eta hainbat aurkezpen teknika erabiliz (ikus-entzunezkoak, IKTak, etab.).</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Erraztasunez eta eraginkortasunez erabiltzen ditu informazio iturriak, bai euskarri tradizionalen, bai euskarri digitalean, besteak beste. – Informazioa hartzaileen ezagueren eta interesen arabera hautatzen du; hau da, kalitatez, kantitatez eta edukiz egokia den informazioa. – Informazioa logikoki egituratzen du, komunikazio asmoa kontuan hartuz. – Ahozko diskurtsoa antolatzeke, askotariko antolagailu zehatzak erabiltzen ditu, diskurtsoaren atalak elkarren artean lotzeko. – Ikus-entzunezko aurkezpen teknikak edo aurkezpen digitalak egiteko teknikak eraginkortasunez erabiltzen ditu, diskurtsoa antolatzeke eta finkatzeko. – Diskurtsoa ulergarri egiteko eta hartzaileen inplikazioa bultzatzeko estrategiak erabiltzen ditu: ideien birformulazioa, galdera erretorikoak, erregistro aldaketak, umorea. – Argi, zuzen eta erraz adierazten ditu bere ideiak, osagai prosodikoak eta keinuak (besteak beste) behar bezala erabiliz. – Autonomia maila egokia agertzen du lan

	jakin baten plangintza egiteko eta lan hori garatzeko.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	

2.- KOMUNIKAZIO IDATZIA	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
6.- Irakurketa helburuari erantzuteko informazio esanguratsua bilatu eta hautatu, informazio iturrien erabileran ekimena, autonomia eta eraginkortasuna azalduz.	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa helburua argi du. - Helburuari erantzuteko egokienak diren informazio iturriak erabiltzen ditu (hiztegiak, gramatikak, entziklopediak, Internet...), eta informazioa fitxatan edo beste sailkapen sistema batzuetan erregistratzen du. - Galderek edo jarraibideek zehazten dituzten baldintzetan edo ezaugarrietan oinarritutako informazioa aurkitzen du. - Informazio garrantzitsua bereizten du, eduki bertsua duten zatiak elkarren artean konparatuz. - Informazioa topatzen azkartasun nahikoa erakusten du. - Aurkitutako informazioa jasotzen du, fitxak edo eta bestelako sailkapen sistemak erabiliz.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
7.- Hainbat generotako eta erabilpen eremutako testu idatzien esanahi globala identifikatu edo eta inferitu, eta ahoz nahiz idatziz adierazi.	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa helburua argi du. - Testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio asmoa ondo ondorioztatzen du. - Hainbat testuren artean, irakurketaren helburuari hoberen dagokiona aukeratzen du. - Testua zertan datzan esaten du, hau da, testuari buruzko informazio orokorra jasotzen du. - Gerta daitezkeen ulermen okerrak edo eta hutsuneak antzeman eta konpentsatzen ditu. - Testuari buruzko galdera egokiak egiten edo eta erantzuten daki. - Eskatutako informazioa argi eta jarioz adierazten du.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
8.- Irakurketa erreflexiboa eginez, testu	- . Irakurketa helburua argi du.

<p>idatzien esanahia interpretatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzen esanahia aurkitzen du informazio iturriak erabiliz. - Hitz ezezagunen esanahia inferitzen du, testuinguruko edo eta testu barruko argibideak erabiliz.. - Testuaren oinarriko ideiak identifikatzen ditu. - Ideien arteko lotura tematikoa eraikitzen du. - Ideien artean era askotariko loturak egiten ditu: kausazkoak, denborazkoak, etab. - Ideien arteko garrantzia mailak ezartzen ditu. - Gerta daitezkeen ulermen okerrak edo eta hutsuneak antzeman eta konpentsatzen ditu. - Testuari buruzko galdera egokiak egiten edo eta erantzuten daki. - Eskatutako informazioa argi eta jarriotasunez adierazten du. - Testuak diona abiapuntu izanik, bere ezagutzak erabiltzen ditu berezko interpretazioa eraikitzeko.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>9.- Ideologikoki sinpleak diren gai ezagunei buruzko testuen edukia eta forma kritikoki interpretatu (komunikabideetakoak, bereziki), horien esanahia ulertuz eta arau moral eta etikoen arabera horien egokitasuna baloratuz; eta edukiari eta formari buruz norbere iritzia eman.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa eta iritzia bereizten ditu, baita gertaerak eta gezurrak ere, besteak beste. - Mezuan esplizituak ez diren osagaiak ondorioztatzen ditu. - Hitzik gabeko osagaien esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoa, etab. - Egileak berariazko helburu bat lortzeko testuan erabili dituen ezaugarriak identifikatzen ditu (tipografia, espazioaren banaketa, modalizatazaileak, lexikoa...). - Bazterketa motaren bat (soziala, arrazazkoa, sexuala, kulturala, etab.) islatzen duten irudiak edo adierazpenak identifikatzen ditu, eta horiek saihestu egiten ditu hitz egitean edo idaztean. - Informazioaren egokitasuna ebaluatu eta azaltzen du, bere ezaguerak oinarri hartuz. - Bere iritzia ematen du, iritzi hori justifikatuz; horretarako, testuaren zati jakinak aukeratzen ditu arrazoi horiek bermatzeko. -
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	

Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
10.- Irakurketa erreflexiboa eginez, hainbat erabilpen eremutako testu genero idatzien eduki globala ahoz nahiz idatziz laburtu	<ul style="list-style-type: none"> - Jatorrizko testuaren ideia nagusia(k) identifikatzen du/ditu. - Ideia nagusia(k) bermatzeko puntuak ere barne hartzen ditu. - Laburpenean jatorrizko testuan hautatutako ideiak koherentziaz, kohesioz eta behar bezala integratzen ditu, estilo pertsonala erabiliz. - Informazioa kopiatzeko objektibotasuna agertzen du. -
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
11.- Hainbat erabilpen eremutako generoetan oinarritutako testuen plangintza egitea, testuinguruaren eta komunikazio asmoaren arabera, norberaren ezaguerak eta erreferentziazko hainbat iturri erabiliz eta erabakiak hartzeko ekimena agertuz	<ul style="list-style-type: none"> - Bibliografiatik, ikus-entzunezko euskarrietatik eta euskarri digitaletatik ateratako informazioa eraginkortasunez erabiltzen du. - Helburuari dagokion informazio egokia aukeratzen du. - Eskemak egiteko, sortu beharreko testu generoari dagokion sekuentzia arketipikoari jarraituz antolatzen du informazioa. - Besteekin batera egiten du lan testu jakin baten plangintza egiteko orduan. -
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
12.- Hainbat erabilpen eremutako generoetan oinarritutako testu idatziak sortzea, komunikazio egoera kontuan hartuz eta hainbat printzipio errespetatuz (koherentzia, kohesioa, zuzentasuna eta aberastasuna) eta lana egiteko esfortzu pertsonala beharrezkoa dela onartuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Aurretik zehaztutako helburua behar bezala islatzen du. - Egoera jakin bati dagokion erregistroa erabiltzen du. - Testua egoki eta zuzen aurkezten du: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna... - Testua sortu beharreko testu generoari dagokion sekuentzia arketipikoari jarraituz egituratzen du. - Paragrafoak logikoki antolatzen ditu. - Hainbat iturritako informazioa behar bezala integratzen ditu. - Testuaren atalak eta enuntziatuak elkarren artean lotzeko kohesio osagai egokiak erabiltzen ditu. - Behar bezala adierazten ditu bere ideiak, bai morfosintaxiari, bai lexikoari, bai ortografiari dagokionez. - Estilo pertsonalez adierazten ditu bere ideiak, hizkuntzaren baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiliz. - Norberaren testua berrikusteko eta hobetzeko autonomia agertzen du. - Testu bat taldeka sortzeko eta

	berrikusteko jardueretan eraginkortasunez parte hartzen du
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	

3.- HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>13.- Euskararen osagaien funtzionamenduari buruzko ezaguerak erabiltzea (testuaren hainbat mailatan) besteen testuak interpretatzeko, baita norberarenak berrikusteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Testuan hizkuntz markak eta hitzik gabeko markak identifikatzen ditu, bai testuinguruarekin, bai testuarekin, bai perpausekin lotutakoak. - Testuak edo enuntziatuak hizkuntz osagai egokiak hautatuz osatzen ditu. - Testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen eraldatzen ditu, emandako irizpideei jarraituz. - Hainbat mailatako oinarritzko akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, bai norberaren testuan, bai besteen testuan. - Beste hizkuntza ezagunetako kalko okerrak hautematen ditu, bai norberaren testuan, bai besteen testuan. - Hizkuntz ezaguerak autonomoki eta eraginkortasunez aplikatzen ditu, norberaren testuak sortzeko. -
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
<p>1. TESTUINGURUA</p> <p>1.1. Adierazpen markak:</p> <p>1.1.1. Deixi pertsonala. Pertsona izenordainak, edutezko izenordainak, aditz hondarkiak.</p> <p>1.1.2. Denbora eta espazio deixiak. Adberbioak eta adberbio lokuzioak, mendeko perpaus adberbialak, aditz aldiak...</p> <p>1.1.3. Modalizazio markak:</p> <p>1.1.3.1. Ziurtasuna zalantza eta probabilitatea adierazteko esamoldeak. Moduzko aditzak, aditz modua; adberbioak eta adberbio lokuzioak; perpaus modalitatea; beste esamolde batzuk.</p> <p>1.1.3.2. Baloraziozko esamoldea. Hizkuntz baliabideak: izena, adjektiboa, aditza, adberbioa...; hitzik gabeko baliabideak: prosodikoak, tipografikoak, ikonografikoak...</p> <p>1.1.4.: Erregistroa. Erregistro lexikoa, hizkuntz</p>	<p>Hizkuntzari buruzko kontzeptuak ondorioztatzeko jarraibideak.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntz korpus bat behatzea. 2. Aztertuko diren osagaiak identifikatzea. 3. Osagai horiek konparatzea eta elkarren artean lotzea. 4. Hizkuntz printzipioak edo arauak ondorioztatzea.

<p>barietatea...</p> <p>1.2. Forma ez murrizgarriak, birformulatze formula modura.</p> <p>Aposizioa, definizioa, exenplifikazioa ...</p> <p>2. TESTUA</p> <p>2.1. Gaien progresioa ziurtatzeko baliabideak: baliabide anaforikoak (edo erreferentziazko mekanismoak).</p> <p>Sinonimoak, hiperonimoak, izenordainak (pertsonalak, erakusleak, erlatiboak), nominalizazioa, elipsia...</p> <p>2.2. Testu lokailuak eta antolagailuak, hainbat lotura mota adierazteko: denbora, espazioa, ordena, gehikuntza, aurkakotasuna, kausa-ondorioa, kontrastea.</p> <p>Juntagailuak, adberbioak, testuko beste denbora batzuekin lotzen diren aditz denborak, baliabide prosodikoak, puntuazio markak, osagai tipografikoak...</p> <p>3. PERPAUSAK</p> <p>3.1. Perpaua.</p> <p>3.1.1. Perpau motak: bakuna, konposatua (denborazkoa, kausazkoa, ondoriozkoa, aurkaritzakoa...)</p> <p>3.1.2. Perpausen egitura: subjektua eta predikatua.</p> <p>3.1.3. Unitate sintaktikoak eta osagai unitateak: izen sintagma, aditz sintagma, adjektibo sintagma...</p> <p>3.1.4. Perpausaren osagaien arteko lotura: deklinazioa, komunztadura...</p> <p>3.1.5. Kalko okerrak.</p> <p>3.2. Hitza.</p> <p>3.2.1. Maila gramatikalak: izena, adjektiboa, aditza, mugatzailea, izenordaina, adberbioa...</p> <p>3.2.2. Oinarrizko lexikoa.</p> <p>3.2.3. Hitzen arteko harreman semantikoak: sinonimoak, antonimoak eta hiperonimoak, eremu semantikoak...</p> <p>3.2.4. Hitzen osaketa: osagaiak, eratorpena....</p> <p>3.3. Ahoskera eta ortografia.</p> <p>3.3.1. Ahoskera: euskararen berezko fonemak, aldaketa fonetikoak hitzaren baitan eta ahozko katearen baitan, diptongoa,, intonazioa...</p> <p>3.3.2. Arau ortografikoak: hitzaren ortografia, puntuazio markak, letra larriak, laburdurak, siglak...</p>	
---	--

--	--

4.- HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTSIOA	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>14.- Oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoei buruzko ezaguerak, bai eta euskararen historia sozialari buruzkoak, norberaren hizkuntz errealitatea kritikoki interpretatzeko erabilteza, euskararen normalizazioak duen garrantzia aintzakotzat hartuz eta inguruko errealitate anitzarekiko (bai hizkuntzaren aldetik, bai kulturaren aldetik) errespetuzko jarrera positiboa agertuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen jatorriaren eta bilakaeraren funtsezko ezaugarriak deskribatzen, kontatzen edo azaltzen ditu. - Euskararen egoera mugatzen duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak jartzen ditu. - Euskal Herriko hizkuntza egoera zehatzak deskribatzen ditu, kontzeptu soziolinguistikoak aplikatuz. - Euskararen egoerarekin lotutako testuak kritikoki irakurtzen edo entzuten ditu. - Euskal Herriko egoera soziolinguistiko zehatzak ebaluatzen edo azaltzen ditu, bere iritzia ezagueretan oinarrituz, errespetua agertuz eta hizkuntzekin edo hiztunekin lotutako aurreiritziak baztertuz. - Eraginkortasunez parte hartzen du testuen esanahia taldeka sortzeko jardueretan, baita egoera zehatzak aztertzeko jardueretan ere.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza Gizateriaren eta gizartearen sorkuntzarako oinarria: komunikabidea, errealitatea irudikatze eta adimena garatzeko bidea, nortasun zeinua eta kulturaren hartzaila eta igorlea. - Euskararen historia soziala. <ul style="list-style-type: none"> o Historiaurretik erromatar inperioa erori arte. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Europako jatorrizko herriak eta hizkuntzak. ▪ Hizkuntza indoeuroparrak. ▪ Erromatarrak Euskal Herrian: latina eta euskara (toponimia eta maileguak) o Euskara Erdi Aroan:: (V.mendea – .XV,mendea) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kristautasuna eta euskara. ▪ Euskal Herriko eta bere inguruneko hizkuntza erromanikoak. o Aro Modernoa. ((XVI. Mendea- XVIII.mendea) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskaraz lehen idazkiak. ▪ Euskal Literaturaren sorrera Iparraldean. ▪ Euskara erakundeetan. o XVIII.mendea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozeduren aplikazio gidatua. - Kontzeptu soziolinguistikoen esanahiaren ondorioztapena. <ul style="list-style-type: none"> o Iturrien ikerketa. o Ahozko testuak eta testu idatziak aztertzea. o Hainbat lotura identifikatzea: kausa-ondorioa, arazoa-irtenbidea... o Kontzeptuen esanahia berregitea. - Hurbileko inguruaren ezaugarri soziolinguistikoen ezaugarrien dedukzioa. <ul style="list-style-type: none"> o Errealitatea behatzea. o Inguruko ezaugarriak identifikatzea, bilatu nahi den kontzeptuaren arabera. o Arrazonamendu analogikoa. o Egoeraren ebaluazio, kontzeptuaren arabera. - Balorazio kritikoa eta erabakiak hartzea, jokabide pertsonalari eta talde jokabideari begira. - Jarrera kritikoa izatea ideologikoki konbentzitzera bideratutako hitzezko eta hitzik gabeko diskurtsoen aurrean (bereziki, komunikabideen diskurtsoen

<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Literaturaren loraldia. . ▪ Hizkuntz eragozpen politikoak. . ▪ Hizkuntzaren lurralde-galera.. ○ Aro Garaikidea. (1789tik gaur arte) <ul style="list-style-type: none"> ▪ 1789-1876: Foruen galeraren ondorioak. . ▪ 1876-1939:Hazkunde demografikoa eta emigrazioa. . ▪ Euskal Pizkundea eta euskazko lehen eskolak.. ▪ 1939-1975; Gerra ondorengo diktadura: hizkuntzaren errepresioa. Euskal kulturaren aldeko mugimendua: Ikastolen sorrera. ▪ 1975-gaur egun: Euskararen ofzialtasuna eta hizkuntz legedia.Euskararen aldeko herri ekimenak. Euskarazko komunikabideak. . – Hizkuntz dibersitatea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntzen dibersitate geografikoa: hizkuntz familiak, gure inguruko hizkuntzak... ○ Hizkuntza eta horren aldaerak: hizkuntza eta dialektoa. Euskalkiak eta euskararen aldaerak. ○ Hizkuntzen gizarte dibersitatea: hizkuntza estandarra, erregistroak. Batua eta euskalkiak. – Hizkuntza eta hiztunak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza komunitatea. ○ Ama hizkuntza eta bigarren hizkuntzak. ○ Hitzun elebakarra, elebiduna, eleaniztuna. – Hizkuntzen konkurrentzia eta kontaktu egoerak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Elebitasuna, diglosia, hizkuntzen ordezkapena, hizkuntzaren planifikazio eta normalizazio prozesuak. ○ Hizkuntzen estatusa: hizkuntza ofizialak eta ez ofizialak; hizkuntza maioritaria eta hizkuntza gutxiagotuak... ○ Euskara batuaren historia eta garapena; Larramendi eta euskararen lehen gramatika; K. Mitxelena, Euskaltzaindia... ○ Hizkuntzen garapenerako eta normalizaziorako erakundeak. Euskaltzaindia, Euskararen aldeko elkarteak, Tokian tokiko herri aldizkariak , tokian tokiko telebista eta irratiak, etab. ○ Herritarren hizkuntz eskubideak eta betebeharrak:Euskararen legea, Estatuko eta Europako araudia. 	<p>aurrean).</p> <ul style="list-style-type: none"> – Besteak eta haien ideiak eta iritziak errespetatzea, eta emozioak kontrolatzea bizitzako egoera pertsonaleko eta sozialeko gatazken kudeaketan, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko. – Parte hartze aktiboa eta arduratsua izatea euskara normalizatzeko eta euskal kultura transmititzeko prozesuetan. – Inguruko eleaniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea, eta horrekiko interesa eta errespetua adieraztea; norberaren eleaniztasuna intelektualki, kulturalki eta sozialki aberasteko bitartekoa dela onartzea.
<p>Konpetentzia ezpezifikoa</p>	<p>Ebaluazio irizpideak</p>

15.- Euskara eguneroko komunikazio harremanetan erabili, euskararen normalizazio prozesuan eta euskal kulturaren transmisioan erantzukizunez parte hartuz	<ul style="list-style-type: none"> – Lehentasuna ematen dio euskarari bere komunikazio eremuetako harremanetan. – Euskararen erabilpenaren eta normalizazioaren eta euskal kulturaren transmisioaren aldeko hainbat jardueratan parte hartzen du.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	

Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
16.- Literatur hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea, horien dimentsio estetikoa baloratzeko.	<ul style="list-style-type: none"> – Literatur lan jakin baten generoa identifikatzen du, horren oinarrizko osagaiak hautemanez. – Emandako ezaugarriak sailkatzen ditu (estiloa, gaia, etab.), irizpide jakin batzuei jarraituz. – Testu batean oinarrizko prozedura erretorikoak eta estilistikoak identifikatzen ditu.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	

5.- EUSKAL LITERATURA	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
17.- Euskal literaturaren historiaren oinarrizko erreferenteak ezagutzea (lanak, egilea, garaiak eta mugimenduak): Idazlan esanguratsuen zati batzuk denen artean interpretatzea, bakoitza bere testuinguru historiko-kulturalean kokatuz.	<ul style="list-style-type: none"> – Idazlan jakin baten testuinguru historiko-kulturalari buruzko informazioa horren esanahia berregiteko erabiltzen du. – Idazlan jakin baten esanahia taldeka sortzeko jardueretan eraginkortasunez parte hartzen du. – Eraginkortasunez erabiltzen ditu hainbat iturri (bibliografia, ikus-entzunezko iturriak, iturri digitalak) literatur lan jakin bati buruzko informazioa zabaltzeko. – Egile eta idazlan atal estereotipikoak horiek sortu zireneko garaiarekin edo horiei dagokien literatur mugimenduarekin lotzen ditu. – Euskal literaturaren hainbat garaitako eta mugimendutako funtsezko egileak eta idazlanak aipatzen ditu.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
1. Literatura: kultura igortzeko eta sortzeko tresna eta adierazpen historiko-soziala. 1.1. Literatur lana bere testuinguruan jartzea: egilea, hartzailea, publikatu zen lekua eta garaia. 1.2. Garai historikoa: Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Gaur egungo Aroa... 1.3. Literatur mugimendua. Euskal Literaturaren eragin duten mugimendu	1. LITERATUR TESTUAK ULERTZEKO PROZEDURAK 1.1. Irakurri aurretiko fasea: 1.1.1. Irakurketaren helburua definitzea. 1.1.2. Irakurketa mota hautatzea: atseginerakoa, erreflexiboa, kritikoa, espresiboa. 1.2. Atseginerako irakurketa:

<p>bakoitzaren ezaugarriak: erromantizismoa, errealismoa, abangoardismoa, surrealismoa...</p> <p>2. Euskal literatura idatzia. Egile eta lan esanguratsuenak, garaiaren, mugimenduaren edo literatur generoaren arabera :</p> <p style="text-align: center;">Zerrenda orientagarria:</p> <p>1. LITERATURAREN HISTORIA</p> <p>1.1. XVI-XVII. mendeak Euskal literaturaren jaiotza: Etxepare; Axular, Ohienart.</p> <p>1.2. XVIII-XX. mendeak (XX. mendeko erdira arte).</p> <p>1.2.1. Prosa didaktikoa: J. Lizarraga, M. Larramendi...</p> <p>1.2.2. Eleberriak: JA Mogel, D. Agirre, Orixe...</p> <p>1.2.3. Antzerkia: P.I. Barrutia, T. Alzaga...</p> <p>1.2.4. Olerkia: Etchahun, Elissamburu, Bilintx, Lauaxeta, Lizardi...</p> <p>1.3. 1940. urteaz geroztik</p> <p>1.3.1. Eleberriak: Etxaide J., Txillardegia, Mirande, J., Arrieta, J. A., Saizarbitoria, R., Urretabizkaia, A., Atxaga, B., Lertxundi, A. Irigoien, J.M., Landa, M; Iturriaga U....</p> <p>1.3.2. Antzerkia: Landart, D....</p> <p>1.3.3. Olerkia: Aresti, G., Artze, J., Atxaga, B., Sarrionaindia, J., Gandiaga, B., Lete, X., Izagirre, K. Lasa, A. Cano H....</p> <p>2. OBRA NAGUSIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Linguae Vasconum Primitiae</i> (B. Etxepare). - <i>Gero</i> (Axular) - <i>Olerkiak</i> (Ohienart) - <i>Peru Abarka</i> (Mogel) - <i>Auñamendiko Lorea; Kresala; Garoa</i> (T. Agirre). - <i>Lur berri bila</i> (Lizardi) - <i>Harri eta Herri</i> (G. Aresti) - <i>Haur Besoetakoa</i> (J. Mirande). - <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> (Txillardegia) - <i>Egunero hasten delako</i> (Saizarbitoria) - <i>Obabakoak</i> (Atxaga) - ... <p>1. Euskal Herrian erdaraz egindako literatura idatzia:</p> <p>1.1. Aro Modernoa Samaniego</p> <p>1.2. Aro Garaikidea: XIX. mendea</p>	<p>1.2.1. Hainbat baliabide erabiltzea norberaren gustuaren araberako testuak hautatzeko.</p> <p>1.2.2. Aurretiko ezaguerak aktibatzea: informazioaren iragarpena, inferentzia eta integrazioa.</p> <p>1.2.3. Norberaren ulermena kontrolatzea.</p> <p>1.2.4. Literaturarekin lotutako esperientziak egiaztatzea eta horiei buruz hitz egitea: irakurketak eragindako irudiak, oroimenak, ezustekoak, ikasitako gauza berriak, hausnarketak.</p> <p>1.3. Irakurketa erreflexiboa eta kritikoa</p> <p>1.3.1. Aurretiko ezaguerak aktibatzea: informazioaren iragarpena, inferentzia eta integrazioa.</p> <p>1.3.2. Norberaren ulermena kontrolatzea.</p> <p>1.3.3. Esanahia denen artean eraikitzea:</p> <p>1.3.3.1. Testuak konparatzea eta bereiztea, bakoitzaren generoaren, garai historikoaren eta literatur mugimenduaren arabera.</p> <p>1.3.3.2. Garai historiko jakin baten ezaugarriak identifikatzea eta ondorioztatzea, klasean landutako testu bat oinarri hartuz.</p> <p>1.3.3.3. Testuan agertzen diren ageriko baloreak eta balore implizituak aztertzea.</p> <p>1.3.3.4. Balorazio kritikoa: norberaren iritziak behar bezala arrazoitzea.</p> <p>1.4. Irakurketa adierazkorra</p> <p>1.4.1. Testua goitik behera irakurtzea.</p> <p>1.4.2. Tonua eta pertsonaien ezaugarriak identifikatzea, besteak beste.</p> <p>1.4.3. Puntuazio markak interpretatzea, intonazioarekin lotuta.</p> <p>1.4.4. Baliabide prosodikoak eta keinu baliabideak erabiltzea.</p> <p>2. JARRERAK:</p> <p>2.1. Parte hartze aktiboa eta arduratsua izatea euskal kultura transmititzeko prozesuetan.</p> <p>2.2. Sormena eta imajinazioa lantzea literatur adierazpenean, baita lanak ulertzeko moduan ere.</p> <p>2.3. Jarrera kritikoa izatea ideologikoki konbentzitzera bideratutako</p>
---	---

<p>Xaho, A. Trueba, A. Navarro Villoslada, Loti, P.</p> <p>1.3. Aro Garaikidea: XX. Mendea</p> <p>1.3.1. Olerkia: De Otero, B, Celaya, G.</p> <p>1.3.2. Prosa: Unamuno, M., Baroja, P. Aldecoa, I., Martin Santos, L.</p> <p>1.4. Gaur egungo literatura</p> <p>Sastre, A., Pinilla, R., Guerra Garrido, R., Mendiola, JM., Etxebarria, L., Sanchez Ostiz, M., Luisa Etxenike, Julia Otxoa, Jon Juaristi, Légasse, M. Delay, Florence;</p>	<p>diskurtsoen aurrean (baita gizarte, arraza, sexu, kultura... bazterketa adierazten duten edukien eta formen aurrean ere.</p> <p>2.4. Inguruko eleaniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea, eta horrekiko interesa eta errespetua adieraztea; norberaren eleaniztasuna intelektualki, kulturalki eta sozialki aberasteko bitartekoa dela onartzea.</p>
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>18.- Ahozko euskal literaturaren hainbat adierazpen ezagutu eta erabili, eta euskararen berezko baliabide erretorikoak eskuratu, nork bere kultur nortasuna eraikitzeko eta aurreko belaunaldien ondarearen igorle lana egiteko, baita norberaren ahozko komunikazioaren adierazpen baliabideak aberasteko ere..</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko hainbat adierazpenen oinarriko ezaugarriak identifikatzen ditu, baita horien generoa ere. - Ohiko eta egungo bertsoak eta abestiak buruz dakizki, eta abestu egiten ditu. - Bertsoen neurri moldeak identifikatzen ditu. - Bertsoen doinu eredugarriak kantatzen ditu. - Koplak eta bertso-paper sinpleak sortzen ditu. - Ipuinak, atalak eta txisteak (besteak beste) erraz eta espresibotasunez kontatzen ditu. - Kultur ondarearen baitako adierazpenen, esamoldeen eta esaeren esanahia interpretatzen du, eta horietako batzuk erabili egiten ditu. - Herriko bertsoetan eta kontakizunetan oinarritutako adierazpen baliabideak sormenez erabiltzen ditu, ahozko hizkuntzaren erabilera ludiko eta afektiboetan
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
<p>1. Ahozko literatura:</p> <p>1.1. Generoak:</p> <p>1.1.1. <i>Lirikoa</i> Kopla zaharra, kantu lirikoa, atsoitza, asmakizuna, dekorazio olerkiak.</p> <p>1.1.2. <i>Narratiboa</i> Balada, eresia, ipuin tradizionala, narrazio herrikoa</p> <p>1.1.3. <i>Dramatikoa</i> Maskarada, pastorala, xaribaria, marijesia, artazuriketa, inauterietako tragikomedia.</p> <p>2. Bertsolaritza</p> <p>2.1. Historia:</p> <p>2.1.1. Ahozko inprobisazio kantatuta kultura errealitate unibertsal gisa</p> <p>2.1.2. Jatorria, hastapenak, aro nagusiak eta haien testuingurua.</p> <p>2.1.3. Aro bakoitzeko bertsolari garrantzitsuenak:</p>	<p>3. Literatur testuen ulermenerako prozedurak:</p> <p>3.1. Irakurketa aurretik helburua definitu eta irakurketa mota aukeratu.</p> <p>3.2. Atseginerako irakurketa</p> <p>3.3. Irakurketa kritikoa</p> <p>3.4. Irakurketa adierazkorra</p> <p>4. Literatur testuen ekoizpenerako prozedurak:</p> <p>4.1. Testuen ekoizpenerako prozedura orokorrak: planifikazioa, testualizazioa, berrikusketa.</p> <p>4.2. Literatur erreferenteen imitazioa eta eraldaketa</p> <p>4.3. Ahozko literatur erreferenteen erreproduzioa:</p> <p>4.3.1. Testuaren irakurketa/entzuketara orokorra.</p>

<p>2.1.3.1. XVIII-XX (erdia) mendeak. Fernando Amezketarra, Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Xenpelar, Txirrita</p> <p>2.1.3.2. 1940z gerozkoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Xalbador, Lazkao Txiki - Bertsolari txapeldunak: Baserri, Uztapide Amuriza, Lizaso, Lopategi, Egaña... <p>2.2. Bat-batekoa:</p> <p>2.2.1. Ezaugarriak</p> <p>2.2.2. Ditzolariak, koplariak eta bertsolariak.</p> <p>2.2.3. Saio motak eta agenteak.</p> <p>2.2.4. Metrika eta baliabideak: doinua, silaba eta bertso moldeak, errima. Neurri mota guztietako doinu eredugarriak.</p> <p>2.2.5. Baliabide poetiko eta retorikoak: "Betelana".</p> <p>2.2.6. Hitzekoak ez diren baliabideak: kantaera, etenaldiak, intonazioa, doinuaren balio espresiboa, gorputz adierazpideak...</p> <p>2.2.7. Bat-bateko ariketa nagusiak: puntuari erantzutea; puntutan aritzea hainbaten artean; gaia jarrita elkarrizketa edo bakarkako azalpena; lau oinak emanda bertsoa osatzea.</p> <p>2.3. Bertso paperak</p> <p>2.3.1. Ezaugarriak: funtzioa, gaiak...</p> <p>2.3.2. Bertso paper eredugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - « Maria Solt ta Kastero »: Pierres Topet "Etxahun" - "Ikusten duzu goizean": Jean Batiste Elizanburu - "Kontxesiri": Juan Inazio Iztueta - Solferinoko itsua (Armen hartzera) - "Pasaiaiko plazatik": Xenpelar - "Iparragirre abila dela": Xenpelar - "Loreak udan ihintza bezela" Bilintx - "Joana Bixenta Olabe": Bilintx - "Triste bizi naiz eta" Bilintx - « Gitarra zahartxo bat det » : Joxemari Iparragirre - « Ara non diran » : Joxemari Iparragirre - "Mutil koxkor bat": Pedro Mari Otaño - "Norteko trenan": Txirrita - "Markesaren alaba": Iturrino - "Egun da Santi Mamiña": Gabriel Aristi - "Bizkaiko txerriarena": Uztarri - "Amodioa gauza tristea": Xalbador - "Mendian gora haritza": X. Amuriza - "Zeru altuan zegoen jaunak": Xabier Lete - "Euskaldun baratzean": Jon Enbeita 	<p>4.3.2. Testua buruz ikastea.</p> <p>4.3.3. Testua berragertzea: dramatizazioa, errezitatzea, abestea..</p> <p>4.4. Bertsoen sorkuntzarako pauten aplikazioa.</p> <p>4.4.1. Ofizioak emandako rola barneratuz, elkarrizketa bideratzea.</p> <p>4.4.2. Ideia edo arrazoi bat sortzea, emandako gai baten inguruan edo eta beste baten argudioari erantzunez.</p> <p>4.4.3. Ideia edo arrazoi hori koplak edo bertso baten bukaerako esaldi batean puntua izateko moduan formulatzea.</p> <p>4.4.4. Arrazoiak bertso bihurtzeko, bertso eredugarrien arrazoibideak baliatzea.</p> <p>4.4.5. Azken hitzarekin errima duten oinak gogora ekarri eta koplak zein bertsoa osatzeko behar direnak aukeratzea.</p> <p>4.4.6. Aurretik atzera, koplak edo bertsoaren betelana egitea bertsoa osatuz.</p> <p>4.4.7. Sortutako koplak edo bertsoa errezitatzea eta kantatzea.</p> <p>4.4.8. Herri kanta edo modako abesti baten melodia erabiliz, letra berria egokitzea..</p> <p>4.4.9. Talde lanean puntuka bertsoak osatzea.</p> <p>Esperientziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bertso-saio bat plazan ikustea. - Maskarada edo eta Pastoral bat ikustea. - Santageda bezpera edo eta antzeko kale- kantu saiotan parte hartzea. - ...
---	--

- "Errota zahar maitea": Juan Mari Lekuona	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
19.- Norberaren bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak sormenez eta sentsibiltate estetikoaz adieraztea, hainbat generotako literatur testuak sortuz (ahozkoak eta idatziak), erreferentziako literatur lanak oinarritzat hartuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Aukeratutako generoari dagokion egitura erabiltzen du. - Aukeratutako generoari dagozkion prozedura erretorikoak eta estilistikoak erabiltzen ditu. - Adierazi nahi duen edukiarekin bat datozen adierazpen baliabideak erabiltzen ditu. - Bere lanetan, sormenez integratzen ditu landutako literatur ereduak. - Berezko estiloa erabiliz adierazten ditu ere ideiak, baita baliabide estilistikoak malgutasunez eta sormenez erabiliz ere. - Testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen ditu.
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	
Konpetentzia ezpezifikoa	Ebaluazio irizpideak
20.- Literatura atsegin, sentsibiltate estetikoaren garapenerako eta munduaren ezagutzarako iturri modura erabili eta norberaren nortasun pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat literatur generotako testuen irakurketa adierazkorra egiten du. - Aktiboki parte hartzen du literatur lanari buruzko elkarrizketetan, bere bizipenak eta ikuspegia azalduz. - Goitik behera irakurritako erreferentziako idazlan bati buruzko iritzi pertsonala azaldu eta justifikatzen du, bai ahoz, bai idatziz. - Literatur lan bat (ahozkoa, idatzia edo lotutako beste arte eremu batzuetakoa) bere irizpideei jarraituz aukeratzen du, irakurketaz gozatzeko
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak
(Ikus Derrigorrezko eskoladirako Euskal Curriculum osoa)	